

Bideraren diru sarrera nagusia izango da gure zerbitzuak erakunde publikoetara saltzea. Tokiko, autonomia erkidegoetako eta estatuko gobernuekin, baita nazioarteko erakundeekin ere, lankidetzan arituko gara inklusio laboral eta sozialeko proiektuetarako finantzaketa lortzeko. Lankidetzak hauei esker, etorkinei eta beste talde zaurgarri batzuei zuzendutako lan-merkatuan txertatzeko programak garatuko ditugu. Horrez gain, gure diru-sarrerak hainbat osagarri izango ditu:

Alde batetik, enpresa pribatuek eta erakunde publikoek finantzatu ahal izango dituzte gure prestakuntza-programak. Formazio hauek lan-merkatuaren eskakizunetara egokituak izango dira, eta langileen gaitasun garrantzitsuenak hobetzea izango dute helburu, hala nola hizkuntzak, trebetasun teknikoak eta pertsonen arteko gaitasunak.

Bigarrenik, Gobernu-programen bidez jasotako hobari ekonomikoak baliatuko ditugu, egoera zaurgarrian dauden pertsonak kontratatzekeo sustapena lortuz. Lan-munduan kokapen arrakastatsu bakoitzagatik hobari ekonomiko zuzenak eskuratzeko aukera izango dugu.

Azkenik, gure proiektuan lagundu nahi duten enpresa pribatuen, GKE-en eta norbanakoen dohaintzak jasoko ditugu. Ekarpene ekonomiko edo materialen bidez, gure zerbitzuak hobetzeko eta gure eragin soziala indartzeko baliabideak lortuko ditugu.



Diru iturriak hilabetero:

Iturria	Deskribapena	Diru-sarrerak estimatuak hilean (€)
Zerbitzuak erakunde publikoetara saltzea	Inklusio laboraleko zerbitzuak tokiko, autonomia erkidegoetako, estatuko eta nazioarteko gobernuekin salduko dira.	15000
Enpresa pribatuen prestakuntza-programen finantzaketa	Enpresa pribatuak langileen prestakuntza-programak finantzatzeko ditu.	7000
Erakunde publikoen prestakuntza-programen finantzaketa	Erakunde publikoek etorkinen eta talde zaugarrien lan-merkatuan txertatzeko prestakuntza-programak finantzatzeko dituzte.	7000
Gobernu-programen bidezko hobariak	Egoera zaugarrian dauden pertsonak kontratatzeke sustapenak jasoko ditugu, gobernuen hobariak baliatuz.	8000
Gizarte-eraginarekin dohaintzak eta lankidetzak	Enpresa pribatuen, GKE-en eta norbanakoen dohaintzak jasoko ditugu, gure proiektua hobetzeko eta gizarte-eragina indartzeko.	3500
Enpresen lanpostuen kudeaketa eta aholkularitza	Enpresei langileen profilak hautatzeko eta integrazio prozesuetan laguntzeko aholkularitza emango zaie.	3000
Guztira		43500